

ZENBAT BURU

Juan Luis  
Mugertza

ERREPORTAIA

Elgoibarko  
Izarraren  
5. urteurrena

KALE INKESTA

Saiatu al zara inoiz  
erretzeari lagatzen?

BERBETAN

Nerea Aranburu,  
grabatu eta esmalte  
irakaslea

GEHIGARRIA

kiliBARREN

KULTURA

Elgoibarko Izarrako  
Idaz Lehiaketak

# BARREN

1997ko urtarrilaren 31  
V. urtea - 181. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




ELGOIBARKO IZARRA



Etap  
berriaren  
5. urteurrena



“Euskararen iraupena zenbat en eskuetan baino nolako euskal dunengan



# ARGI

## Pinturak

*Jose Antonio Pascual*

- Enpapelatuak
- Lakatuak
- Gotelet
- Pintaketak orokorrean

Artisau lana nahi  
baduzu,  
guk emango

Erretxindi, 1- 20870 ELGOIBAR  
Tel. 74 41 47 - Mobila 90920 72 05

# SALEGI

Santuario ondoan  
☎ 19 90 04 - 19 91 81  
ITZIAR



*Zure ospakizunetarako  
leku aproposena*

*Ezkontzeko asmoa  
baduzu, etorri  
lekua hartzera*





JUAN LUIS MUGERTZA

## Telekontrola

**X**X. mendean “Telekontrol” izeneko fenomeno delata eta, gizarte mailan aldaketa haundiak ezagutu ditugu. Mundua eta elkarrengandiko distantziak txikiagotu ditugu. Horren ondorioz, bai nazioek, bai estatuak nolabaiteko protagonismoa galdu egin dute, nahiz eta oraindik herritarrekiko loturari eutsi.

Munduaren eskenatokia orain dela mende asko, hiru zatitan banatuta zegoen: enparantza, etxea eta kalea. Grekoen sasoina enparantzak zuen betebeharra oso haundia zen. Hiritar guztiek (esklabuak salbu) parte hartzen zuten. Eztabaidatzeko eta akordioak, paktoak egiteko gunea zen. Egun, telebistak betetzen du zeregin hori guztiok esklabu bihurtuz. Ikusle gehienak pasiboak dira; ikusle gehienek gizarte konpromezurik gabeko individualismoaren aldeko postura egin dute. Eta hori horrela izanik gure politikoak horretaz baliatzen dira lelotuagoak izan gaitzen. Ez dago urrutira joan beharrik telekontrola izateko. Botoia sakatu eta eskaintza guztiak pare-parean ditugu. Urrutiko heziketa ere begi onez ikusten da. Neurri haundi batean bai ume, bai nagusi askoren kultura telebistak emanikoa da. Horretarako ditugu oso jantziak dauden telepredikatzaileak. Telekontrolak ondo funtzionatzeko ikusleek etxean egon behar dute eta horretarako etxea egokitu behar da: antena parabolikoa, bideoak, zintak... Hori dena lortu eta gero etxean merkatua, zinea, gobernu, futbol-zelaia,... izango ditugu. Besterik eska al dezakegu? Eta gainera lagun berriak egingo ditugu. Telebistako aurkezleak gure lankideak baino ezagunagoak izango dira. Jakingo dugu bere bigarren ohekidea nor

den, bigarren abizena eta abar.

Telekontrolak sortzen duen komunikazio eza kezkatzekoa da. Etxean gero eta gutxiago hitzegiten dugu ez baldin bada programa baten gainean. Umeak aspertu egiten dira ez badute telebista ikusten. Zer gertatuko litzateke hilabete batez telebista ez ikusteko esanez gero? Elgoibarren 100.000 pta. eskainiko baliogute familiako, zenbaterik onartuko lukete?

Gizakion bizimodua gure aiton-amonon garaian kalean, etxean eta lanean egiten zen. Gaur egun etxean egin dezagun nahi dute. Lehen neskatan egiteko hitzetorriak lagundu egiten zuten. Egun, mutua izanda ere ez dago arazo handirik. Lehen ofiziorik zaharrena kalean gauzatzen zen. Gaurko modernokeria

hauek direla bide (telefono erotikoa, pelikula pornoak...) hori ere aldatu egin da.

Lehen kalea arnasa, irudimena, komunikazioa zen. Bat baino gehiago go-

goratuko da umea zela zer-nolako lana hartzen zuten txapetan jolasteko. Jolas aurreko zeremonia demasekoa zen. Lehenengo eta behin txapa aurkitu, horretarako maniak egoten ziren, nik “Fanta” gogoko nuen, beste batzuek “San Miguel”. Gerorako, masilla eta azkenean kitorolari bat, orduan ez zegoen Indurain aukeratzeko baina bai Iribar, Kortaberria...

Kalea askatasuna zen eta horrelakoxea izaten jarraitu behar, bestela gureak egin du. Kalea iraultza da eta hori etxeetan isladatuz gero, telekontrolaren lana ziurtatzen da. Kalearen ahotsa herriarena zen eta da, eta hori badakite egun komunikabideak menperatzen dituztenek. Kalean egiten den egintza horren helbururik nagusia manipulazio horretan datza. Telekontrolarik ez! Lehengo baloreak bai!

“Kalea askatasuna zen eta horrelakoxea izaten jarraitu behar bestela gureak egin du”

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

## MAKETATZAILEA

Maite Rementería

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martín

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martínez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



• kutxa fundazioa  
• fundación kutxa

**DANOBAT**  
MAQUINAS HERRAMIENTA

## Milesker, Gaztetxe

Zer eta nola esan horrenbeste esate-  
zko dagoenean?

Ni 32 urteko elgoibartarra naiz. Gaztetxea okupatu zenean Donostian nenbilen ikasten eta ez nintzen saltsa haietan sartu.

Asteburuero bueltatzen nintzen "nere" herrira. Astero, astero... baina ostiralero lelo berbera, taberna bat, beste bat, berriz lehenengora, kale hotza, eurixa, droga ezberdinak non-nahi, bila ibili gabe ere, gertu, gertuegi agian. Herrira kriston ilusiuarekin bueltatu eta ostiralero oso bakarrik sentitzen nintzen herriko taberna eta bazterretan kontatzeko nituen nahi eta asmoak nork "benetan entzunik" aurkitzen ez nuela.

Halako batean, Instiputuan egindako lagun batekin egon nahi nuela eta, Gaztetxean sartu nintzen (ordurarte egin ez nuen bezala) berarekin hitzegiteko asmoz. Han aritu ginen berbetan, ez berarekin bakarrik, ordurarte ezezagunak ziren beste batzuekin ere bai. Taldetxo bat geunden, ez dot gogoratzen zertaz berba ein gendun, baina gogoratzen dodana nire barruko poza da. Zein gustura egon nin-tzan han, "leku berri" hartan, ezezagun haiekin. Zein lasaitasun izan nuen han berbetan jarduteko (horrelako beste momentu asko ere izan genituen e!).

Orduetik Gaztetxera joaten hasi nintzan eta ikasketak bukatu ondoren berriz herrira bueltatu nintzanean, bertako, etxe hartakoa sentitzen hasi nintzan (GAZTETXEA, GURE ETXEA). Orduan hasi zen nere bizitzan izan dudana esperientziarik ederenetarikoa. Han ireki zitzaidan benetan ikasteko gogoa eta han ulertu eta barneratu nituen hitz hauen balore eta zentzua: ASANBLADA eta AUTOGESTIOA.

Bi hitz hauek horrela esanda hartzak badira ere, atzetik dakarten guztia, ez da makala!

Asanbladan erabakitzen genituen egin beharrekoak, haura zan eztabaidatzeko, hitzegiteko, elkar informatzeko eta proposatzeko gunea. Horrela, gure ideia eta pentsamenduak adierazten ikasi genuen, eta entzuten ere bai, noski. Batzuetan gustuko ez nituen gauzak ere onartu behar, gehien-goak horrela ikusten zuelako edo horrela komeni zelako. Zenbat ordu pasako ote genituen berbetan? Auskalo!

Funtzionamendu asanblearioa izatea elkarloturik doa etxea antolatzeke erarekin eta gu geu gai izan ginen etxe hartan hainbat ekintza ezberdin antolatu, gestionatu, anuntziatu, ordaindu, disfrutatu, aguantatu e.a. egiteko. AMETSAK EGIA BIHURTUZ!

Eta hori, hori guztia eginez jendearen artean sortzen den harreman, laguntasun eta giroa da nik nire lagunaren artean, eta azken finean bizitzan, bilatzen dudana. Eta geure artean bizi izan genuena, hori bai ez digula kenduko, ezta botere-zale sibilinoenak ere!

Horregatik, Gaztetxe, eskerrik asko zure baitan bizitzari beste zentzu bat hartzen lagundu zenidalako eta, nola ez, zure inguruan egin nituen lagunak lagun on bihurtzeko aukera eman zenidalako.

OSASUNA ETA ASKATASUNA!!

**Arantza Etxeberria Canales**

## Okerrak zuzentzen

Joan den asteko BARRENen, 180. zenbakiko 9. orriko "Aste Honetan" atalean, Roberto Balanzategi medikuak idatzitako testuan, gripearri buruzko datuak oker xamar jarri genituen. Hona hemen datu zuzenak:

DEBA BEHEAN

Urtea . . .	Gripe kasuak
1991 . . . . .	3.614
1992 . . . . .	3.230
1993 . . . . .	4.849
1994 . . . . .	2.993
1995 . . . . .	3.457

## Oharra

Aste honetan komunikabide bateko herriko kronikan agertu den berri batek sortu duen gaizki ulertu bat argitze aldera, zera adierazten du BARRENek: kanpoan bizi direnei BARREN postaz bidaltzeko kobratzen dugun kuota, 1.000 pta.tik 1.500era igo dugula.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

## GALDERAK

◆ “Mintxetan gimnasia egiten dugun talde bat gara. Denboraldi hasieran, irailean, 600 pta. igo ziguten kuota eta horren ehuneneko bat aseguru ordaintzeko zela esan ziguten. Baina hara non jakin berri dugun ez dagoela inongo asegururik”.

Udal Patronatuko zuzendariari aseguruaren gainean galdetu diogu eta hona hemen esan diguna:

“Kuota 96. urte hasieran igo genuen, ez irailean, eta ez bakarrik aseguru-

rengatik. Urte osoan erresponzabilitate zibileko aseguruaz gain beste kobertura pribatu bat ere izan genuen M.G.D. aseguru etxearekin, pertsona bakoitzeko 1.800 pta. guk ordaintzen ditugularik.

Hau gehiegizkoa denez 97an gure obligazioekin bakarrik jarraitzea erabaki dugu (erresponzabilitate zibilarekin) eta prezioa ere abo-natuei 475 pta. jaitsi diegu. Nire galdera hau da: zein herritan aurki ditzakezue prezio merkeagoak?”

## TXALOAK

◆ “Txalo bat Ongarri Zine Klubari eman dituen pelikulengatik. Zirkuito komertzialetik kanpo dauden pelikulak ikusteko aukera eskaintzea oso estimagarria iruditzen zait”.

◆ Guraso bat etorri zaigu joan den ostiralean Ikastolako haurrek egin zuten jaialdia benetan polita izan zela esateko eta parte hartu zuten guztiei bai eta antolatzaileei ere txalo bat emateko.

## KEXAK

◆ Erretxindiko auzotar batek deitu digu zeharo haserre “ganberrada” bat salatzen: “Pasa den larunbatean Roke tabernatik atera zen gazte talde batek parean zegoen zuhaitz txiki bat atera eta autopistara bota zuen. Ez al daukate zeregin hobetarik gazte batzuek larunbat gauetan?”.



## BAI, ESAN?



Pedro

Agirregomezkorta

Lagunak pilota eskolako lehendakaria

Pilotako San Anton txapelketako finalak jokatu berri direnez, eta domekan binakako finala izango dela kontuan hartuta, LAGUNAK PILOTA ESKOLAKO lehendakaria den **Pedro Agirregomezkortari** deitu diogu Elgoibarko pilotaren egoeraz eta etorkizunaz galdezka.

– **Aspaldian ez dugu Elgoibarren puntako pilotaririk izan.** - Nire ustez, Elgoibarren aspaldian puntako pilotaririk ez egotearen arrazoi nagusienetarikoa honako hauek izan daitezke: alde batetik, instalazio eskasia egon da eta ondorioz zeuden instalazioek aukera gutxi eskaintzen zuten pilotan jokatzeko. Bestetik, orain dela 6 urtera arte zegoen Pilota Eskola ere ez zegoen oso ondo antolatua pilotari gazteei nolabaiteko ilusioa sortarazteko. Azkenik, orain dela 12 urterate edo, elgoibartarren artean futbola ikustera joateko joera askoz handiagoa zen pilota ikustera joatekoa baino.

– **Zer da Pilota Eskolak egiten duena? Eta zer lortu nahiko zenukete?** - Monitorean bidez neska-mutil gazteei lagun giroan pilota munduan sartzen ahalgintzen gara; pilotari buruz hitzeginaz, teknika landuz, jolastuz, etab. Helbururik garrantzitsuenak pilotarekiko zaletasuna areagotzea da, gure herrian hedatzea. Ahalik eta pilotari gehienak afizionatu eta profesional mailetara ailegatzea ere gustatuko litzaziguke, eta horretan saiatzen gara.

– **Futbolak eta antzerako kirolek ez al dute pilota gure herritik desagertaraziko?** - Guztiz desagertaraziko duenik ez dut pentsatzen, baina pilotari indarra kentzen diola argi dago. Gaur egun 9-11 urte bitarteko gaztetxoek hainbat kirol egiten dute, baina adin horretatik aurrera gehiengoak beste kirolak utzi eta futboleko jokatzera jarraitzen du. Futbolak batez ere, denok ikus dezakegun bezala, asko erakartzen du.

## ESKIA ASTE BUKAERETAN

(Irteerak DONOSTIAtik)

**Classy**

San Frantzisko, 56  
Tel-Faxa: 74 02 40  
20870 ELGOIBAR

**JACA/CANDANCHU**

**11.900** pta.tik

Ostatua 2 gau  
+ gosaria edo pentsio erdia  
+ 2 egunetako erremontea  
+ autobusa + izarak + tasak

**FRANZIAR PIRINIOA**

CAUTERETS - SAINT LARY - GABARNIE

**10.900** pta.tik

Ostatua 2 gau + gosaria edo  
pentsio erdia + 2 eguneko erremontea  
+ autobusa + izarak + tasak

**ASTEBUKAERA**

**JACAN**  
GARRAIOA GABE

**9.900** pta.tik

2 gau +  
2 eguneko erremontea



# Atzera begira aurrera egiteko

*Askok ez duzue jakingo Elgoibarko Izarra desagertzeaz egon zenik, baina hala da. 1963. urtean sortu zen kultur elkarte hau 1990. urtean desagertzeko zorian egon zen. Bazkide askok ez zion etorkizunik ikusten, euren ustetan ez zuen inolako funtziorik. Halere, Elkartea oraindik egiteko asko zuela pentsatzen zutenak ere izan ziren. Eta hauek Elkartea bizirik mantentzea erabaki zuten, garai hobekak etorriko ziren itxaropenean. Hauei eskerrak, 1992an hasi zen Elgoibarko Izarraren etapa berria. Duela 5 urte, hain justu.*

## Profesionalak eta militanteak nahasian

Etaparen berri berrikuntza garrantzitsuak izan dira. Bat azpimarratzekotan, langile profesionalak aipatuko genituzke. 29 urtean lan militante hutsean jardun eta gero, profesionalen beharra somatu zen. "Profesionalen militantzia eta militanteen profesionaltasuna" zen Elkarteko gidari berriek onartu zuten formula. Hasi, profesional batekin hasi ziren, Elkarteko dinamizatzaileekin. Gaur egun 8 langile profesional-militante dauzka Elgoibarko Izarrak. Halere, garbi laga nahi izan digute militanteak direla Elkartearen arima eta bihotza, militanteen esku dagoela Elkartea.

## Helburuak: euskara eta kultura

Bigarren etapa honetan aldaketa nabariak egon ba-

dira ere, helburuek 1963ko berak izaten jarraitzen dute: euskara eta kultura suspertzea Elgoibarren. Ezer-tan hasi aurretik, eta Udalak eskatuta, Elgoibarren euskarak bizi zuen egoera aztertu zuen SIADECOK. Azterketa eskuetan hartuta, lehentasunak aztertzen hasi zen Elgoibarko Izarra. Eta berehala hutsune handi bat ikusi zuten: euskara gutxi erabiltzen zela Elgoibarren. Jendea euskararen alde dago, jakin ere jende askok daki euskaraz baina, gutxi erabiltzen da. Beraz, Elkartek euskararen erabilera

areagotzera bideratu zituen hasierako proiektuak.

## Hiru proiektu nagusi

Bost urte hauetan hiru proiektu nagusi jarri ditu martxan. Horietariko bakoitzak helburu bat baino gehiago badu ere, guztiek helburu amankomun bat dute: euskararen erabilera suspertzea. Komunikabide arloan, BaRREN astekaria, aisialdian Atxutxiamaika Begirale Taldea eta normalizazioari dagokionean Gurean Bai izan dira hiru lehen proiektuak.

Elkartetik esan digute-nez, "ez da lan erraza izan

proiektuak martxan jartzea, baina proiektu serioak eta profesionalak ziren eta ezin zuten ezetz jasotako. Gainera, proiektuak martxan jartzeko orduan jende askok izan duen borondate ona ere azpimarratu nahi dugu".

## 38 milioiko aurrekontua

Elgoibarko Izarra bezalako proiektu sozial batek aurrera egin dezan, diru kontuek garrantzi handia dute. Proiektuek diru de-xente behar dute martxan jarri eta irauteko. Horrelako kasuetan gainera, gastuak sarrerak baino handiagoak izaten dira beti. 92an

## 3 proiektu 5 urtetan



## BARREN astekaria

- 1993.an kaleratu zen lehen zenbakia
- **Aurrekontua:** 24,5 milioi (96ko aurrekontua)
- **Langileak:** 4 profesional eta makina bat kolaboratzaile.
- **Helburua:** Esaldi batean laburbiltzea ezinezkoa bada ere, euskara ardatza izanik herritarren arteko komunikazioa eta harremanak aberasteko proiektua da.

## ATXUTXIAMAIIKA Begirale Taldea

- 1995. urtean aurkeztu zen
- **Aurrekontua:** 4.500.000 pta. (97ko aurrekontua)
- **Langileak:**
  - Profesionalak: Teknikari bat egun erdiz eta 28 begirale
  - Militanteak: 6 lagun
- **Helburuak:** Elgoibarko haurrek euren aisialdian edo denbora librean euskaraz ondo pasatzea eta pertsona bezalako aberastea.



5 milioiko aurrekontua zuen Elkartek eta 1996an 38 milioiri aurre egin behar izan dio. Aurrekontuaren erdia dirulaguntza publikotik (Udala, Aldundia eta Jauralaritza) jasotzen dute. Beste erdia, berriz, Elkartek berak lortzen du (Bazkide kuotak, BARRENekeko publizitatea...). Elkarteko gerenteak esan digunez, "dirulaguntzak ez ditugu donatibo bezala jasotzen. Guk herriaren onerako diren proiektuak prestatu eta aurkezten ditugu eta Udalak erabakitzen du zenbat diru eman. Diru hori Elgoibarren etorkizunaren mesedetan inbertitzen da".

#### Gizartearen zatiketa

Amaitzeko, langintza honen alde grisa ere aipa dezakegu. 5 urte hauetan gauzak ondo irten badira ere, dena ez da bide laua izan. Elkartekoen hitzetan, "gizartea oso zatituta dago eta euskararenaren aurretik

interes pertsonalak, politikoak eta antzerakoak jartzen dira askotan". Oso garbi daukate euskara dela Elgoibarko Izarra egotearen arrazoia. Arazo bat baino gehiago izan dute, "batez ere BARREN astekariarekin. BARREN astero-astero iristen da 3.800 etxetara eta alde ezberdinetatik presio dexente izaten dugu". Arazoei aurre egiten ikasi beharko dutela aitortu digute, "gure helburua ez baita bataren edo bestearen alde egitea. Elgoibartar guztiontzat balekoa izan daitekeen proiektu bateratzailea jorratzen ari garela uste dugu".

Langintza berean segituko dutela aitortu digute, "ez dakigu noraino iritsiko garen eta zer lortuko dugun, baina inork ezingo du esan, euskara erdigunean jarritz, Elgoibarren hizkuntz komunitate bakarra osatzen ahalegindu ez ginetik".



#### GUREAN BAI

- 1996. urtean sortua
- **Aurrekontua:** 3.069.000 pta. (97ko aurrekontua)
- **Langileak:**
  - Profesionalak: Teknikari 1 egun osoz
  - Militanteak: Segimendu Batzordeko 7 lagun
- **Helburuak:** Elgoibarko entitateetako hizkuntz komunitateak normalizatzea, horretarako euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa areagotuz.

Proiektu hauez aparte, Kultur Eskaintza azpimarratu behar da. Hau da profesionalik ez duen lantalde bakarra eta bost urte hauetan kultur iharduera desberdinak antolatu ditu. Urteko 2.500.000 pta.ko aurrekontua du.

## Lehendakariak eta dinamizatzaileak diotena

### Ales Arrieta

Etapa berriko 1. lehendakaria


**- Zerk bultzatuta animatu zinen desagertzear zegoen elkarteko 1. presidentea izate-ra?**

Hiru arrazoi izan nituen:

1- Proiektu berriaren seriotasuna eta dinamizatzailearen figura liberatzaileak gauza berriak egiteko ematen zuen bermea.

2- Proiektu berriaren Elkartearen gai bakarra euskara izango zela ziurtatu zidaten, beste gaiek tokirik izan gabe. Hala gertatu da.

3- Dinamizatzailearekin izan genituen elkarriketek euskararen egoerari buruzko ikuspegi berri bat zabaldu zidaten. Ikuspegi horrek asko lagundu dit gerora.




### Iñaxio Garmendia

Elgoibarko Izarrako lehendakaria

**- Zu aspalditik zaude Elkartean baina, bost urteotan bizitakotik, zer azpimarratuko zenuke?**

- Gaurko gizartean elkarte kulturelek ezin dutela militantzia hutzarekin aurrera egin. Beharrezkoak dira profesionalak, eta nahitaezkoa profesionalen eta militanteen arteko uztarketa orekatua.



### Imanol Larrañaga

Elkarteko dinamizatzailea

**- Zein gogoeta egiten duzu 5. urteurrenean?**

Hain toki txikixan ezin da gogoetarik egin baina hiru ideia botako ditxut:

1.- Elgoibartarrok euskaldun IZATEKO BORONDATIA. Bai Elkartia ez desagertzeko erabakia hartu zanian eta bai harrezkero, garbi ikusi dot jendiak nahi dabala, euskaldun izateko borondatia badaola Elgoibarren.

2.- Jendiaren PROFESIONALITASUNA. Bai militantiaren eta bai profesional-militantiaren lan bikaina nabarmendu nahi dot. Bakoitzak dakan onena eman dea eta hori asko igartzen da. Ejenplu bezela Elkartian proiektuen kalidadia aitxatuko nuke.

3.- Elgoibartar gehixenok euskerian alde bagaoz ere, badia euskaldunok bat itxia galeraztan daben motibuak. Ez dakitx euskaldunok batzen gaitxuena (euskeria), banatzen gaitxuena baino garrantzitsuagoa dan. Izan ere, banatzen gaitxuen arrazoi askotxo ikusten dot herri honetan.



# Saiatu al zara inoiz erretzeari lagatzen?



**YOLANDA AVILA**  
23 urte, kamarera

Ez, oso gustura erretzen baitut. Nahiko kontrolatua daukat erretzearena, pakete batek bi egun eta erdi irauten dit. Gaixorik nagoenean ez dut erretzen.



**ANA ISABEL PEREZ**  
30 urte, kazetaria

Nire lanagatik ezin dut. Kazetaria naiz eta estresatua nagoenean zigarroak erlatzaten laguntzen dit. Orain eszedentzian nagoenez, zigarro kopurua mugatu dut.




**ANGEL MUJIKA**  
55 urte, iturgina

Bai, gaixorik egon izan naitzenian, extarrixa euki dotenian fastidixauta. Ez da erreza lagatzia. Beltza erretzen dot eta asko gainera.



**TXOMIN MENDEZ**  
56 urte, jubilatua

Purua erretzen dut. Saiatu izan naiz lagatzen, gehienez 13 hilabete egon naiz baina berriro hasi naiz. Lagatzea baino mantentzea da zailagoa.



**FELIPE GUTIERREZ**  
38 urte, igeltseroa

Bai, hamabost egun erre gabe egon eta gero berriro hasi nintzen. Irautea da zailena. 22 urterekin hasi nintzen erretzen baina ezin utzi. Bi pakete erretzen ditugunean.



**ANGEL BERISTAIN**  
65 urte, jubilatua

Zigarrua oin dala hamar bat urte laga naban, errez. Gero purua erretzen hasi nitzan lantzian piskat, eta azkenian gero eta gehixo. Oin astian bat erretzen dot.

## Gabi jate- xea

Nafarroa plaza - ☎ 74 12 30- ELGOIBAR  
Mozorrotuta datozenen artean

**BI LAGUNENTZAT AFARI BAT**

**zozketatuko dugu!!**

Zozketa asteartean gaueko 12etan izango da.

**ONDO PASA IHAUTERIAK!!**

- GOSARIAK • PINTXO AK (8,30etatik aurrera) •
- MENU BEREZIAK • MENU TRADIZIONALAK •





## Erretzeari uztea

Bai, erretzeari lagatzea posible da. Izan ere, erretzeari uztea lortu duten pertsona ugari dago gure inguruan. Erretzeari uztea gure borondatearen esku egon ohi dela entzutera ohituta gaude baina ez da horrela, motibazioan dago gakoa. Erretzeari uztekotan bazau-de, lehen gauza zergatik utzi nahi duzun planteatzea da. Zein diren horretara bultzatu zaituzten arrazoiak eta zer nahi duzun lortu horrekin. Arrazoiak pena merezi badute, erretzeari lagatzea ez da horren zaila izango; data jarri eta buru-belarri ekin.

Arrazoiak zenbat eta indartsuagoak izan, errazago izango da uztea. Zailak izango diren momentuak daude, baina zure helburuak gogorarazteak aurrera egitea ahalbidetuko dizu. Gogorre-na abstinentzia sindrome ize-naz ezagutzen dena da. Une zail hauetan oso garrantzitsua da kontuan izatea gorputzak astebete edo hamar egun behar dituena nikotina eta beste toxina batzuk botatzeko. Lehen bi egunak berebizikoak dira. Erretzeko gogo-a pasatu egiten da, zereg-in batean lan egin buru-belarri eta zig-arroari kolpe

egiteko gogo-a desagertu egingo da.

Txikleak eta gozokiek asko laguntzen dute, hori bai, azukrerik gabe. Zure gorputzetik lehenbailehen toxinak etab. desagertarazteko berdurak eta frutak jan eta zukuak edan. Kirola egitea ere inportantea da; kirol ezberdinak egin daitezke: igeriketa, ordubeteko pasia-ra arin bat,... bai eta tabako-arekin zerikusirik ez duten gustukoak ditugun gauzak ere. Era berean, gure burua saritu dezakegu erre gabe igaro dugun denbora tartea-rengatik (argi eta garbi saria ezin daiteke izan zigarro edo puru bat). Gogoan izan une oro, hasieran jarritako hel-buru horretatik are hurbila-go egongo zarela erre gabe ematen duzun egun bakoit-zeko.

Poliki-poliki zigarroaren oroitzapena desagertuz jo-ango da. Ez duzu patrika gauzaz beterik eraman be-har izango, ez duzu tabako makinarako kanbioak topat-zen ibili beharko. 2.000 eta 4.000 pta. bitartean aurrez-tuko dituzu astero; zure osa-suna nabarmenki hobetuko da, hobeto hartuko duzu ar-nasa, eta zaporea eta usai-mena berreskuratuko dituzu. Sekula ez duzu ahaztu behar erretzailea izan zarela, eta beraz, zigarro bat bakar-ra erretzeak berriro hastea su-posa dezakeela. Horixe ger-tatzen bazaizu, ez estutu. Aztertu zerk bultzatu zai-tuen erretzera eta ekin berriz uzteari. Hala ere, ezinezkoa bazazu uztea, profesional batengana jo eta agian ho-rrela, erre-zago egingo zaizu. Animo, ziur lortuko duzula! (Erredakzioan itzulia)

**Rosa M. Carqués**  
(Minbiziaren aurkako  
Elkarteko Psikologoa)

## iSPI- DEGIRA



GOAR  
asesoriakoa

*Jose M. Otaegui*

- **Aholkuak eman ala hartu?**
- Beti da ona aholkuak jasotzea, gero norberak erabakitzen du jarraitu ala ez.
- **Eta zein izan da jaso duzun onena?**
- Zerbitzu enpresa batean garrantzitsua zerbitzua ematea dela.
- **Zure gorputzeko zein atal aseguratuko zenuke?** - Gehien arduratzen nauena ezintasunen bat izatea da, nire kasa baliatzeko gai ez izatea.
- **Zer da bizitza aseguratua izatea?** - Lasaitasuna eta oreka izatea familian eta ekonomian.
- **Bizi aseguru bat ala jubilazio plana?**
- Ezintasunen bat gertatuz gero aseguratuta egon nahi nuke baina jubilazio plana alde batera utzi gabe, noski.
- **Osasuna, dirua ala maitasuna?** - Osasuna.
- **Eguraldiak ba al du eraginik zugan?** - Ez.
- **Asteko egunik txarrena?**
- Edozein izan daiteke txarra edo ona.
- **Zer nahiago, egin izanagatik ala ez egitegatik damutzea?** - Egin izanagatik.
- **Gustatuko al litzaizuke munduari bira ematea?** - Bai. Munduko biztanle garen neurrian interesgarria litzateke herrialde ezberdinak ezagutzea.
- **Eta zein garraio aukeratuko zenuke?**
- Hegazkina.
- **Ba al duzu telefono mobilik?** - Ez.
- **Utziko al zenuke negozioa etorkizuna iragartzen duen esku?**
- Ez dut horrelako gauzetan sinesten.
- **Loteria, primitiba, kiniela...**
- Kiniela egiten dut astero.
- **Zure bizitzako lema?** - Bizi eta laga bizitzen.
- **Jatekorik gustukoena?** - Txuleta eder bat.
- **Kutxa txartelek dirua desagertaraziko al dute?** - Gauzak nola dauden ikusita, litekeena da.
- **Kazetaria bazina zein berri eman nahi zenuke?** - Munduan gosea desagertu dela.

## ● San Lazaro egoitzako tonbola

San Lazaro egoitzak hirugarren munduko herriei laguntzeko tonbolako zenbaki sarituen zerrenda luzatu digu. Hona hemen sariak eta hauei dagozkien zenbakiak:

Manta	.....1129
Otarra	.....0688
Manteleria	....1022
Tapete handia	..2699
Tapete txikia	..2741
Toailak	.....3002
Bidaia poltsa	...1950
Esprimidorea	..2448
Ontziteria	....3347
Irratia	.....1455
Irudi bat	.....2440
Erlojua	.....2254
Erlojua eta boligrafoa	....1926
Plantxa	.....2283

San Lazaro egoitzak Gabonetako misioen tonbolan parte hartu duten elgoibartar guztiei eskerrik beroenak luzatu nahi dizkie.

## ● Guraso Eskola

Otsailaren 5ean, seme-alabak eskolan garaian dituzten gurasoentzako Hezkuntza ikastaroak hasiko dira. Ikastaro hauek Elgoibarko eskolen laguntzarekin antolatuta dira eta helburua seme-alaben hezkuntzan lagundu eta babesle izatea da. Saioak Kultur Etxean izango dira asteazkenero, 14,45etik 16,15era. Oraingoz iluntzeko 7etatik 9etara bitarteko taldea ez da osatu, behar adina lagunak izenik eman ez duelako.

## ● Zaharren Etxeko kristalen garbiketa

1997rako Zaharren Etxeko kristalen garbiketaren adjudikazioa laster baten egingo dela jakinarazi du Udalak. Kristalen garbiketa urtean birritan egingo da eta eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 17a baino lehenago egin beharko dira Udaletxeko Ongizate Sailean. Lehiaketan parte hartzeko derrigorrezkoa da enpresa legezkoa izatea.

## Metaleko enpresa gehienek egin zuten greba

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako Gipuzkoako metalaren grebak "oihartzun zabala" izan zuen Elgoibarren bai eta Deba bailara osoan ere, beti ere sindikatuen iturrien arabera. Sindikatuak eta Patronalaren artean ez dago adostasunik orduen murritzeta, soldatak eta kontratu finkoen auziaren inguruan, eta horixe izan zen grebaren arrazoia.

Eibarko ELAko bulegotik adierazi digutenez, Elgoibarko enpresa handiek oso ondo erantzun zioten greba deialdiari. LAB sindikatuko arduradunek jasotako datuek ere gauza bera adieraz-

ten dute, "enpresa handi gehienetan ez zen lanik egin eta lantegi txiki askotan ere greba egin zen". Itziaroko industrialdeko Anayak, Mupem, GME, Cons. Mecanicas Elgoibarresas, Elgoibarko Geminis, Lagun, Alkorta, Rodisa eta Kondia itxita egon ziren. Etxe-Tar-en kasua berezia izan zen, gehienak sozioak izanik, langileek bakarrik erantzun baitzioten grebari. Enpresa txikiei dago kienean, ez zen lanik egin, Arriagako eta Ibai-Tarteko enpresa askotan.

ELAK zein LABek grebaren "balorazio oso positiboa" egin dute. Astearte eguerdian manifestazioa egin zen Eiba-

rreren 600 bat langile-  
ren partehartzearekin. Asteartean Gipuzkoan izan bazen, gaur, hilak 31, Araban eta Bizkaian izan da greba. Datorren otsailaren 13 eta 14an 3 herrialdeetan greba egiteko deialdia luzatuko dute sindikatu nagusiek.



## Mozorro lehiaketan 30.000 pta.ko saria egongo da taldekako irabazlearentzat

Udalak mozorro lehiaketa antolatu du otsailaren 8rako. Orain arte Atxutxia maikak aurkeztu eta antolatzen zuen baina aurten Gurutze Gorriko Astialdi Taldeak izango du zeregin horren ardura. Epaimahai herriko elkartetako kideek osatuko dute.

Sariak ez dira nolana hikoak. Taldekako lehen sailkatuak 30.000 pta. jasoko ditu. Bigarrenak 20.000 eta hirugarrenak 10.000. Banaka irabazten duen mozorroarentzat 20.000 pta.ko saria dago. Bigarrenarentzat 15.000 pta.koa eta hirugarrenarentzat 10.000 pta.koa.

Atxutxiamaika Begirale taldeak, bestetik, larun-

bat arratsaldean karaokea prestatu du haurrentzat Plaza Handian eta segidan mozorroren desfilea. Gauean Mauxitxa txaranga kalejiran aterako da eta gaueko 10etan Luhartz taldearekin dantzaldia izango da Plazan. Gauerdian emango zaio hasiera lehiaketari.

Asteartean, otsailak 11, ohiko mozorro topaketa egingo da Plaza Handian eta jarraian *Tutik ere Klown* taldearekin ikuskizuna. Eurria egingo balu ikuskizuna Kiroldegira pasatuko litzateke. Aurtengo aurrekontua milioi bat pta.tik gorakoa da.





### Ikastolako haurren jaialdia

Ikasle, irakasle eta gurasoek Kiroldagiko frontoia goraino bete zuten, Ikastolako eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako 380 haurren jaialdia ikusteko. Aurten bi jaialdi egingo dituzte Ikastolakoek. Batetik, eskolaurrekoak eta Lehen Hezkuntzakoek euren jaialdia egin dute eta bestetik, Bigarren Hezkuntzakoek Aste Santu aldera egingo dute eurena.



### Zuzendaritza Kontseilua Herri Eskolan

Herri Eskolan eskola kontseilu berria aukeratu dute. Argazkian denak agertzen ez badira ere hona hemen nortzuk osatzen duten: goian J. C. Adot, A. Astiazaran, L. Lopez, A. Etcheverry, A. Aldazabal, Jose Luis Ibarzabal, Jose Inazio Izagirre, I. Arenal, H. Ronne, M. J. Masach, M. L. Zabalza, A. Jauregi, N. Cerrejon, M. A. Gordo eta Juanjo Baztarrika. Behean G. Otero, J. A. Gomez, I. Alberdi, J. Gorroño, I. Iturbe, J. M. Unanue eta Timo Uzin. Falta direnak A. M. Egidazu, M. J. Bida, J. Centeno eta J. M. Arrese.



### Ongarri Zine Kluba ikastetxeekin lanean

Ongarri Zine Klubak "Microcosmos" filmearen bi saio antolatu zituen ostegun goizean ikasleei zuzendua. 450 ikasle izan ziren emanaldietan. Aurrerantzean kolaborazioarako aukera egongo dela adierazi dute Ongarrikoek.

### Elgoibarko protesi enpresa batek irabazi du Eibarko Toribio Etxeberria saria

Elgoibarko Ingenieria Sanitaria Baskinsa enpresak Toribio Etxeberria lehiaketako lehen saria irabazi du. Joan den ostiralean Eibarko Tekniker enpresan sari banaketa ekitaldia izan zen Eibarko alkate eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburu den Ramon Jauregiren partehartzearekin. Toribio Etxeberria VII. edizioko lehen saria, 3 milioi pta.koa, Fernando Azpia-zuk jaso zuen, Baskinsako

arduradun nagusiak. Enpresa elgoibartarrak "Enpresa Proiektuak" ataleko lehen saria irabazi zuen. Ideien ataleko sariak hutsik geratu ziren. Sanitaria Baskinsa enpresak mokorrerako bi protesi mota dauzka gaur egun merkatuan. Bigarren saria txibia garbitzeko sistema berritzailea egin duen Orioko enpresa batentzat izan zen eta hirugarrena Walter Pack enpresarentzat.



### Euskal prentsa eta dirulaguntzak

Hil honen 17an, euskal idatzizko komunikabideak, tartean BARREN astekaria, Eusko Jaurlaritzaren azken hiru urteotako diru-laguntzak urtetik urtera beherantz doazeala salatzeke bildu ziren. Zenbait aldizkariren egoera ekonomikoa oso kaxkara da eta 1996. urteari dagozkien laguntzak kobratzeke daude. BARRENeK jasotzen dituen diru laguntza publikoen berri ematen dugu jarraian:

Urtea	Elgoibarko Udala	Mendaroko Udala	Jauriritza	Aldundia	GUZTIRA
1994	5.000.000	400.000	2.205.200	2.000.000	9.605.200
1995	7.500.000	600.000	2.573.700	2.000.000	12.673.700

### 31 hautagai Brigadako 2 lanpostutarako

Iragan berri den astelehenean, hilak 27, Brigadako bi lanpostutarako lehen azterketa egin zen. Izena eman zuten 31 hautagaien artean, 18k egin zuten lehen azterketa, hau da, euskara azterketa. Eskatzen zuten euskara maila 1. perfilari dagokio. Azterketak IVAPen zuzendu dituzte eta gainditzen dutenek bai eta euskararen azterketa egiteko beharrik ez zutenek ere, datorren astean egingo dute hurrengo froga: azterketa aritmetikoa eta diktaketa. Gainditu beharko den hirugarren azterketa froga fisikoa da eta azkena praktikoa.

## ● Erretzeari uzteko ikastaroa atzeratua

Jende gutxik eman zuela izena eta, erretzeari uzteko ikastaroa otsailaren 4an hasiko da. Minbizi Elkarteko Rosa M<sup>a</sup>. Carques psikologoak emango du ikastaroa eta 6 astetan izango da, asteartean. Talde bakoitzean 8 pertsona onartuko dira gehienez. Izena emateko 74 10 08ra deitu.

## ● Gazte Asanbladen Koordinakundearen aurkezpena

Iragan berri den zapatuan, hilak 25, Debaldeko, Durangaldeko eta Urolaldeko Gazte Asanbladen Koordinakundeak pasibitatearen aurka hasi duen kanpainaren berri eman zuen Elgoibarko Gaztetxean prentsaurrekoan. Prentsaurrekora joateko gonbitea hainbat komunikabideri luzatu bazioten ere, "bertan inor ez agertu izana salatu eta zenbait mediok emandako informazio manipulatu kritikatu nahi dugu". Pasibitatearen eta indibidualismoaren arazoia "beldurrean dago. Beldurra (poliziarri eta agintariei beldurra, lan galerari beldurra...) pasibitatea eta indibidualismoa sortzen du eta horren aurka borrokatzea da asmoa". Kanpaina panelen bidez bai eta triptiko eta beste zenbait ekin-taz osatuko da.

## ● Anbulantzia Elgoibarren

Joan den ostegunean Guillermo Garate alkateak, Jose Zumalakarregi Gipuzkoako Larrialdietako nagusiak eta Xabier Saenz De Buruaga Osasun kontseilari ordeak izan zuten bileraren ondorioz, larrialdietako anbulantzia Elgoibarren mantenduko da.

Larrialdirik ez duten kasuetarako enpresa pribatu batek jarritako anbulantziek funtzionatuko dute. Aurten, baita ere, Elgoibar eta Zumaia bitartean anbulantzia medikalizatu bat jarriko da oraindik zein herritan izango den zehaztu gabe dagoen arren. Apirilaren 15ean beste bilera bat egingo da hartutako erabakien funtzionamenduaren balorazioa egin eta, beharrezkoa baltz, neurriak hartzeko.

## Salbatorea jarri dute Txankakuan

Azken 45 urteotan San Bartolome parrokiaren egon eta gero, Jesukristoren irudia Txankakuara bueltatu da, bere jatorrizko tokira. Joan den asteazkenean, 7etako mezaren ostean, Parrokiatik hasi eta Santa Klarako parke berriraino prozesioan eraman zuten Salbatorearen irudia. Parke berriko arkuak zulatu eta bertan egokitu da Salbatorearen txokoa. Beira batez babestua izan da. Harelere, datozen egunetan irudia errestauratzaile batengana eramango da konpon dezan. Egurraren egoera nahiko ona bada ere, eskuin eskuko bi atzapar falta zaizkio. Gainera, gaur egun irudiak esku artean duen kainabera ez omen zeukan jatorrian eta oraindik ez da erabaki zer egingo duten. Konpon-

keten aurrekontua 150.000 pta.koa da eta Santa Klaran batzorde bat osatu da proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Salbatorearen irudia egurrezkoa da, 1,40 m. neurtzen ditu eta XVIII. mende inguruan eraiki zen. Dirudienez 1953. urte ingurura arte Txankakuan egon zen aipatu irudia eta urte askotan Santa Klara, San Pedro eta San Migeleko aukideek gurtu omen zuten.



## Lanbide Eskolako ikasle ohiak Ingalaterrara joan dira Leonardo programarekin

Lanbide Eskolako 12 ikasle ohi Ingalaterrara joan dira Leonardo programaren barruan. Manchesterrera urtarrilaren 24an joan ziren eta 4 hilabete pasatuko dituzte bertan. Beste talde bat otsailaren 6an Sauthet on Sea izeneko herrixkara doa 3 hilabeterako. Administrazioa ikasle ohiak dira guztiak automotzioko ikasle ohi bat izan ezik. Taldeak klaseak jaso eta ingelesa ikasteaz gain enpresa desberdinetan lan praktikak egingo ditu. Bestalde, Lanbide Eskolako 3 irakasle eta Eusko Jaurlaritzako

teknikari bat Alemaniara joan ziren iragan den astelehenean. Helburua, autoen birziklaiari buruzko ezagupenak jaso eta aurrera begira Elgoibarren arlo hori landuko lukeen ikasketatik zikloa abian jartzea da bai eta enpresa bat sortzea ere.



# Kili **BARREN**

Urtarrilaren 31  
36. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



# H

ilabete honetako argazkia **Javier Urbietak** lagatakoa da. Bere esanetan duela 36 urte ateratakoa da eta kua-drila osoa agertzen da bertan. Mateoneko parean

atera zuten erretratua jaiegunean.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Zutik, ezkerretik hasita: **Jose Ignacio Zulaika, Don Juan Igiñiz apaiza, Ibon Muguruza eta Ignacio Garate "Animarte"**.

Eserita: **Antonio Iriondo, Jose M. Arrizabalaga, Pedro Azpiazu, Javier Urbietak eta Jose Antonio Loiola**.



### III. URTEURRENA

1994ko otsailean, 59 urte zituela hil zen **NAZARIO ARMENDIA BEGUIRISTAIN**en oroimenez **URTEMEZA** izango da otsailaren 1ean San Bartolome Parrokianarratsaldeko 7etan. Bere sendiak **ESKERRAK** eman nahi dizkie bertan izango diren guztiei.



**E**uskal Herriko herri gehienetan bezala Mendaron ere ospatzen dugu Santa Ageda eguna. Hor ibiltzen dira urtero koplari, trikitalari eta jende kuadrila bat kalez kale eta baserriz baseri koplak abestuz. Ohitura hau gure herrian aspalditik egiten den arren, urte batzuetan desagertuta egon zen. Duela lau urte Mendaroko Dantzari Taldeak ohitura berpiztea pentsatu zuen jasotako dirua taldearen beharretarako erabiltzeko.

Orain dela 4 urte Dantzari Taldeak diru beharra zuela eta, Santa Ageda egunez koruak atera eta

k o p l a k  
a b e s t u z  
M e n -  
d a r o -  
k o

kale eta baserrietan ibiltzea pentsatu zuen. Eta taldea martxan jarri zen. Antolaketan Florentino Larrañaga eta Juankar Urbizu ibili izan dira orain arte. Juankarrek go-goan ditu lehen urteko antolaketa eta esperientziak, "lehenengo bi urtietan Mendaroko lau koplari hartu genitxun: Jabier Urbietta, Juanito Loiola, Manuel Loiola eta Isidro Astorkia. Horiekin batera pare bat trikitalari eta 30 lagun izaten ginan koruak eitxen". Azken bi urteotan Manuel Loiola eta Juanito Loiola ibili dira eta iaz azpeitiar bat gehitu zitzaizen, Larrañaga. Talde osoa bitan banatu eta herri osoa zeharkatzen dute koplatan, kaleak

bai eta

baserriak ere, "koplariak ere banatu egiten dira eta dana pasatzen dou. Hasi Aran Erreka, Etxabe mendixa eta segi Sahatzu aldia, Plaza eta Mendarozabal. Eguerdia partera arte hori eitxen dou eta "Aizpe" soziedadian bazkaldu eta gero, batzuk San Jose aldia eitxen debe eta beste batzuk Garagartza. Iluntzian danok Azpilgoetan elkartzen gera eta gabian afarixa eitxen dou".

#### Emakume eta haurrik ez

Orain arte, gizonezkoak bakarrik ibili izan dira Santa Agedako koruetan. Halere, gai honen inguruan Juankarrek gauzak argitu nahi izan ditu, "esan bihar det umiak baserrietan ezin diala ibili baina kalia bai. Eta emakumiei dagokienez, sekula ez zaie debekatu emakumeei etortzea. Denok gara pertso-

nak eta nire aldetik behintzat, ez dago arazorik emakumiek etorri nahi badute. Orain arte egon ez badia, sekula etorri ez dialako izanda".

#### Dirulaguntza handia

Santa Agedako eskeak Mendaron dirulaguntza handia biltzea suposatzen du. Juankarrek azaldu digunez, "orain arte urtero 300.000 pta. atera izan dia eta hori Mendaro bezalako herri barentzat asko da. Oso pozik gaude jasotako dirulaguntzarekin. Urtero, gastuak kenduta, 265.000 pta. inguru jasotzen ditugu. Kontuan izan bihar da Azpeitiko koplari-xari pagau ein bihar jakola eta afarixa ere gastuen artian dao. Baina baserrietan kris-



EGANA

ton dirulaguntzia ematen dabe”.

**Baserritarren ilusioa**

Baserritarrei ilusio handia egiten die aintzinako usadio honek. Gainera, Juankarren hitzetan, “koplak lehengo eran kantatzen ditzue. Baserrixetara jun eta aitzixakin hasi eta etxeke gaztieneraino koplak kantatuz”.


Aran Errekako Lizarola baserrikoek azaldu digutenez ilusio handia egiten die ohitura honek, “hona normalian urtero etortzen dia eta guri ilusio haundixa eitzen digu. Beti ateratzen deu zeozer jateko; baserriko gaztaia edo eta dirua ere beti ematen deu. Etxeko danoik kantatzen digute zerbait eta herriko koplaxak badia

beti dake zeozer esateko”.

Mendarozabaleko Idiazabaltxo baserrikoak ere oso pozik daude egun horrekin, “sasoibatian galduta egon zan eta oin berriro hastiak poza ematen dau. Etortzen diane beti ematen diegu zeozer pikatzeko eta ahal dan neurrian dirua ere bai”.

**Aurteno egitaraua**


Aurten otsailaren 8an ibiliko dira Santa Ageda koruak Mendaron. Goizeko 9etan aterako dira Frontoitik eta koplariak Manuel Loiola, Juanito Loiola eta iaz ibili zen Azpeitiko Larrañaga izango dira eta baliteke laugarren bat ere gehitzea. Antolatzaileek jendea animatu nahi dute parte hartzera baina, hori bai, joan nahi duenak aurretik eman beharko du izena **b a z k a r i r a k o** “Aizpe” elkartean.



1997-I-16

**MANUEL LOIOLA:**

**“Mendaro da herri bat benetan merezi dauana Santa Eskia eitxia”**



- **Noiztik zabilta koplari?**

- Koplari bezela urte asko daramatzat. Lehenengo aldiz ibili nitzala uste dot 9 urte nitxula. Lehen Ikastoliantzat izaten zan dirua baina gero lagata egon zan. Oin dala 4 urte dantzari xentzat dirua zala eta berriro hasi ginan.

- **Erraza al da egun guztian zehar koplak asmatzen ibiltzea?**

- Bi lagun ibiltzen geranian ondo moldatzen gera baina bestela astuna eitzen da. Hala ere, beti etortzan zaizu zerbait burura.

- **Zeri buruzkoak izaten dira koplak?** - Denetik egoten da. Zaharreri modu baten, gaztiei beste zenbait gauza esan, gauza xebleriak, disparateren batzuk ere urtetzen dia batzuetan... Danetik!

- **Baserria ala kalea?** - Neri bixetan kantatzia gustatzen jata baina baserrixan normalian jende asko egoten da eta hauei danei kantau bihar izaten jakue. Hala ere, oso pozik gaude baserrixetan itxen diguten harrerarekin. Mendaro da herri bat benetan merezi dauana Santa Eskia eitxia. Kalian edozeini kantatzen diogu, leihuan dauanari edo gure aurretik pasatzen danari.

- **Anekdotarik?** - Oin momentuan ez naiz akordatzen urtero koplak asko irtetzen dia eta. Akordatzen naiz lehen itxen zanian maistrei baimena eskatu eta gau guztia kantatzen izaten ginan. Nik koplak kantau eta aho-ko soinua jotzen naban. Kantatuko dizut nahi badozue pentsatu doten bertso bat:

*“Mendaroko dantzari xentzat  
da gure diru biltzia  
baina beti dute gastua  
bidaiak edo jantzia  
guri gogorra egiten zaigu  
hor kantuan ibiltzia  
baina ondo ordaintzen  
dute ta merezi dau kantatzia”*

- **Zein izaten da momenturik onena?**

- Iluntzia. Goizian hotzak egoten gera askotan baina iluntzerako berotu eitzen zera. Iluntzian danak elkartzen gera eta hiru edo lau koplari elkartzen bagera,

### ❖ **Etxe kooperatiba berria**

Mendaroko etxebizitzaren merkatuak izugarriko gorakada izan du azken urteotan. Dagoeneko beste kooperatiba berri bat sortu da Kilimon izeneko. Kooperatiba berri honen proiektua 12 etxe eraikitzea da baina hasieran, jende gehiagok izena eman bitartean, 6 bakarrik eraikitzen hasiko dira.

### ❖ **Ihauteriak Ikastolan**

Datorren ostiralean, hilak 7, Ihauteriak direla eta San Jose Ikastolan jaialdia ospatuko da. Arratsalde partean ikasle guztiak mozorrotu eta jokoak egingo dituzte patioan.

### ❖ **Egonaldiak jubilatuta eta pentsionistentzat**

Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak 15 eguneko egonaldiak antolatu ditu Benidorm-en. Irteerak otsailaren 10ean eta martxoaren 24an izango dira eta 36.000 eta 39.000 pta. bitartean ordaindu behar da, daten arabera. Interesatuak Mendaroko Lagun Betikoak Elkartearen edo Gipuzkoako Elkartearen 428575 telefonora deituz eman dezakete izena. Era berean, bainuetxekeo tratamendua jarraitu nahi dutenek, Arnedilloko bainuetxera joateko aukera dute.

### ❖ **Mendaroko ospitaleko balantzea**

Mendaroko Eskualdeko ospitaleak 1996ari dagokion behin-behineko ihardueren balantzearen berri eman du. Diru sarrerak 2.615.504.000 pta.koa izan ziren eta gastuak 2.614.719.000 pta.koa. Zerbitzuei dagokienez 5.184 alta izan ziren eta 27.085 estantzia (pertsona batek bataz-beste 5,23 egun igaro zituen ospitalean). Ebakuntzen kopurua 4.352koa izan zen eta erditzeak 515. Kanpoko kontsultak 99.646 eta larrialdiak 19.677.

## Euskarazko II. Ipuin lehiaketa


Urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, Euskarazko II. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa egin zen. Guztira 27 ipuin aurkeztu ziren, 14 A mailan eta 13 B mailan. Jasone Osoro, Anjel Bazterretxea eta Arantza Egañak osatutako epaimahaiak honakoa erabaki zuten:

**A mailan** 1. saria Alberto Alvarez Mendozarentzat izan zen, *Azken Lepokoa* idazlanari esker. 2. saria, berriz, Itziar Leiaristi elgoibartarraren *Ama bateri maitasunari* lanarentzat izan zen eta herriko

lehen Maite Zubiaurrek jaso zuen *Amona Joxepa* ipuinarekin.

**B mailari** dagokionean Egoitz Horrillo mendarotarrak jaso zuen txapela *Amama* idazlanari esker. 2. saria Amagoia Basurtorentzat izan zen, *Bakardadearen jauzia* lanagatik eta herriko lehen Julen Arrillagaren esku geratu zen, *Gozamenen bila* idatzi izanagatik.


Era berean, Udaletxeko Euskara Batzordeak iazko eta aurtengo ipuinak argitaratzeko asmoa du.



## Organo berria Azpilgoetako elizan

Mendaroko abesbatzaren ekimenez, Azpilgoetako elizarako organo berria erosi da. Organoa "Organiphon" etxekoa da, italiarra eta eskuko 2 teklatu, bakoitzak 61 notakoa eta oinpeko beste teklatu bat, honako hau 30 notakoa, ditu. Muestreo teknologia erabiltzen du organo erosi berriak, hau da, benetako tutuzko organoen grabazio digitalean oinarritzen da. Erregistro asko ditu: flauta, tronpeta, oboea, fagota... Organo berriaren kos-

toa 625.000 pta.koa izan da. Kopuru honetatik 150.000 pta. abesbatzak antolatu zuen Olentzeroan jaso zen eta gainontzeko 500.000 pta.k herriko pertsona batek emandako eskupekoari esker osatu da.





*35 urte ditu eta elgoibartarra den arren, hitzegiten entzutean edonork esango luke ondarrutarra dela. Izan ere, gurasoak Bizkaiko kostaldeko herri hartakoak ditu eta txikitatik haien hizkera jaso du. Nerea Aranburuk umetan idatzi baino nahiago izaten zuen marrazkiak egitea eta ez da harrizkoa gaur egun bere bizitza esmalte eta grabatu artean ematea. Grabatua Egoibarren, Eibarren, Deban eta Bartzelonan ikasi eta gero, Egur eskola sortu zenean esmaltearekin hasi zen eta gaur egun esmalte eta grabatu irakaslea da bertan.*

## ”Artian abstraktua ez da plastoi bat, bere lana daka”

**- Grabatuarekin hasi zinen.**

- Eskulanian zeozer nahi neban, grabaua tokau eta gustau ein jatan. Ni hasi nitzan eskopeta tipoko grabaua eitxen Eibarren eta gero Elgoibarren Fernando Beorlegik Egur zabaldu zabanian grabatu kalkografikuakin hasi nitzen.

**- Zer da, berez, grabatu kalkografikoa?**

- Txapa baten dibujua ein eta txapatik papelera pasatzen da. Papel horri deitzen jako grabatua. Zuri-beltza edo kolorietan izan laike, segun eta txapako dibujiari ze kolore sartzen jakon.

**- Kalkoa izaten da ala orijinala?**

- Nik neuk orijinala eitxen dot baina kalkauta ere izan laike.

**- Esmaltea koloretako kristalarekin egiten da, ez?**

- Ez daka zerikusirik grabatuarekin, beste mate-

rixal batzuk diez eta beste modu bat lantzeko, “esmalte al fuego” deitzen jako. Esmaltiaz txapa baten gainian pintatzen da eta gero lababatian egosi. Erabiltzen dan pinturia kristala da, berotasunaz urtu eitxen da eta txapa gainian koloretako pelikula bat geratzen da.

**- Zuk esmaltea gehiago egiten duzu, ez?**

- Bai baina bixak gustatzen jataz. Ikastaruak eta gero ere grabaduan urtian zihar ez da jendia ibiltzen eta esmaltian bai. Igual grabaduan barnizak eta erabili bihar dialako eta zikinaua dalako. Dana dala, oso diferentiak die, pinturia eta eskulturia moduan die. Bixek artia baina bakoza era batekua.

**- Esmaltea eta grabatua ez dira oso ezagunak.**

- Ez, eskerrak Egur bezelako eskolak dauden eta horrelako teknikak ikasteko aukeria emoten daben.

**- Abstraktuak gustatzen**

**zaizkizu.**

- Bai, baina ez da plastoi in eta urtetzen dana. Bila ibili eta gero urtetzen da abstraktua, bere lana daka.

**- Koadroak ezezik, beste gauza asko ere egin daiteke esmaltearekin, ez?**

- Bai, hormako erlojuak, ispiluak eta joierixarako ere erabiltzen da. Pasatzen dana da materixala karua dala eta horregatik guk ez ditxugu belarritxakuak eta holakuak eitxen.

**- Dena dela, neurri mugatuak dira, ez?**

- Bai, labik emoten dabena. Normalian zeozer haundixa eitxeko mosaiko tipua ein laike. Tamaino txikixan ein eta gero puzzle bat bezela pegau.

**- Ikatzek erretratuak ere egiten dituzu.**

- Bai. Lukas Alberdikin ikasi nabana eta oin enkar-guz eitxen ditxut. Argazkixa ematen die eta han begiratu-ta eitxen ditxut erretratuak.

**- Ez da erreza izango, ez?**

- Ez da erreza, ez, baina amaitzen dozunian, pertsona horren antza dakala ikustiak, bere espresiuia asmatu dozula ikustiak satisfazio haundixa ematen dau.

**- Zure buruaren erretraturik egin al duzu sekula?**

- Ez, ondiok nere buruana ez.

**- Ikasle izatetik irakasle izatera.**

- Bai eta egixa esan ez da erreza. Nik teknikia erakutsi bai baina abilidadia bakoitzak daka eta bestela lanakin ikasten da.

**- Momentuz afizioa al da?**

- Bihotzez ofizio baina garbantzuk jateko ez dau emoten.

NEREA



*Adi, irakurle!*

**ELGOIBARKO  
GAITZIZENAK  
EZAGUTU NAHI  
DITUGU!!!**

*Laster batean atal berri batekin hasi nahi dugu txoko hone-tan. Gure asmoa bertan Elgoibarko goitzen edo gaitzizenak biltzea da, aste bakoitzean bat aztertuz. Hau da, nondik datoren horrela deitzeko ohitura, nori deitzen dioten izen horrekin, zergatik, etab.*

*Atal hau irakurleen esku dago, hortaz, zuen laguntza behar-beharrezkoa zaigu. Zure goitzenaren edo ezagutzen duzun beste edozeinen nondik-norakoak emateko BARREnera etorri edo 74 41 12 telefono zenbakira deitu. Benetan eskertuko dizugu.*

G O G O R A T U Z

Gregorio Leiaristi  
Larrañaga  
(1907-1987)



- Elgoibarko San Roke bailarako Panparron baserrian jaio zen 1907ko urtarrilaren 1ean. Bost anai-arreba ziren, bera zaharrena.
- Umetan herriko eskolan ibili zen.
- San Roke bailarako Agarreko Iñaxi Izagirrekin ezkondu zen eta Panparronera joan ziren bizitzera.
- Hiru seme-alaba izan zituzten.
- Garratz egin zuen lana baserrian, soroan eta ganaduarekin.
- Sasoi batean San Roke bailarako jendeak herri kirol probetan galdu besterik ez zuen egiten. Beranduago, Gregoriok, antxitxika Madalatik Azkaratera beste batzuen aurka bai eta ganadu eta gizon probetan ere irabazi egin zuen. Honek laga zuen San Roke bailara goi mailan Elgoibarko kirolean.
- Bailarako maiordomoa izan zen.
- Hauxe gizon popularra herrian!. *Txabal* gaitzizenarekin zen ezaguna.
- Lagun giroa, ganadu feria, bertsoak eta trikitixa zituen gogoko.
- 1987ko urtarrilaren 5ean hil zen 80 urte-rekin.

Juanito Gorostiza

**ATXUTXI  
KARAO-**

**PLAZA HANDIAN  
arratsaldeko 4:30etik**

**A! eta ez ahaztu disfraz...  
MOZORROEN DESFILEA  
ere egongo da eta  
ZATUZ GUREKIN KANTATZERA!**

**ANTOLATZAILEA:**  
Egoibarko Izarrako  
ATXUTXIAMAIIKA B.T.

**LAGUNTZAILEAK:**  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaurlaritza



Aste honetako erretratu zaharra **Ramon Maiztegiren lagun batek** ekarri digu. Goian daukagun erretratua 1982ko uztailaren 23an aterata dago Ramon Maiztegi egindako omenaldian.

Gure-Bide elkarteak egin zion omenaldia Ramonek elkartearen alde egindako lanaren ordainetan. Jakin dugunez, urrezko domina eman zioten.

160 lagun egon omen ziren omenaldian, Gure-Bideko

jangelak gainezka egin zuen. Toki gehiago egon izan balitz, seguru bete egingo zela.

Ezkerretik hasita, parez pare: **Jose Luis Beloso apaiza, Ramon Maiztegi, Jose Antonio Artadi medikua, Pepe Arrillaga medikua, Mari Ezenarro** (Kultur zinegotzia) eta **Jose Zabala** (jatordua prestatu zuena, bertso kantari).

Bizkarra emanda: **Jaime Ugarte Federazioko presidentea, Iñaki Korta (†), Antonio Gabilondo (†)** eta **Jose Elkorro-Irbe (†)**.


Hauetz aparte, omenaldian **Udala, Txutxo Larrañaga** eta **Egurbide** pilotari ezaguna ere egon zirela jakin dugu.



**Bukatu S. Coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**



**INTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**Truk**

**ZABALIK** goizeko  
9etatik aurrera,  
astelehenetik  
larunbatera



**San Frantzisko, 27 - Tel. 74 26 21**



## “Gipuzkuako txapelketia irabaztia nahiko nuke”



### Ana Etxaniz

- **Adina:** 11
- **Telebistako programa bat:** pelikulak
- **Aktore bat:** Bradd Pitt
- **Ihauterietan mozorrotuko zara?** Bai, hippie-n modura

- **Noiz hasi zinen atletismoan?**  
- Lehenengo mailan nauanian. Nere anaixak korrika eitzen zaban eta neri ere gustatzen jatanez, ba...

- **Pista duzu batez ere gogoko.**  
- Bai, aire libreko pistan korrika eitzen dotenian batez ere. Gehixen karrera ez oso luziak eta ez oso motzak gustatzen jataz. 1.000 metro edo 1.500 metro ingurukoak.

- **Nerbioek eragina izaten dute?**  
- Beti. Ohixuta nao jendian aurrian korrika eixera baina nerbixuak beti daoz. Batez ere, kanpeonatoetan.

- **Txapelketa inportanteren batean izan al zara?** - Tolosan lengo urtian pistako Gipuzkoako kanpeonatuan eon nitzan. Luzera eta 150 metro hesietan, bixetan hirugarren izan nitzan. Ilusio haundixa eingo lidake Gipuzkoako txapelketa irabaztiak.

- **Elgoibarren korrituko duzu?**  
- Bai, otsailian 23an da Gipuzkoako txapelketia, 1750 metrotan hartuko det parte.

- **Zein beste kirol duzu gogoko atletismoaren barruan?** - Altura ere gustatzen jata. Atletismuan dana eitzen dot gustora, pisu jaurtiketa izan ezik.

- **Mintxetako Atletismo Taldearekin zein lasterketatara joaten zarete?** - Herrietako krosetara. Askotara jun gera: Azkoitia, Hernani, Errenteria, Lasarte, Irun, Idiazabal... Ixa aste-

ro juten gera, larunbatian pista izaten da, igandetan karrera popularrak.

- **Zer moduz lasterketa hauetan?**  
- Nahiko ondo. Behin Erreterian eta Arraten irabazi naban eta oso inportantia izan zen ze Gipuzkoako txapelketa-rako sailkatzeko balio zaben.

- **Erraz irabazten al duzu?** - Batzuetan. Nekatuta baldin banao, baria etortzen bajata edo gaixorik egon banaiz, ezin dotela igartzen dot. Karrera bat galtzen dozunian eta karrera inportantia bada batzuetan zure buruakin haserretzen zera. Beti daoz egun txarrak.

- **Zenbaten behin entrenatzen duzue?** - Astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 7etatik 8etara. Mintxetan entrenatzen dogu batzuetan Dani Rinorekin eta bestetan Pedro Cardabarekin. Normalian sprint-ak eta bueltak ematen ditzugu.

- **Oraindik oso gaztea zara. Jarraitzeko gogorik?** - Bai. Datorren urtian infantiletara pasauko naiz. Bi urte izaten diaz. Lenengo urtian infantil txixixa izango naiz eta nagusixaeukin tokauko jata korrika eixia, horregatik badakitx datorren urtia ez dala aurtengua bezain ona izango. Dana dala, jendiak gogorra dala esaten du baina neri ondiok ez jata hori gertatzen.

- **Atletismoa ez balitz?** - Futbolian ibiliko nitzake. Gustatzen jata.

## ESKOLARTEKO JOKOAK

### EMAITZAK (Urtarrilaren 25a)

#### ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak** ■  
Ikas Eguzki 4 - Ikas Ilargi 3  
Mendaro D 3 - Ikas Otsokoak 6  
Herri Manchester 7 - Ikas Axelkoak 2  
Herri Boomerang 3 - Pilar All Star 9  
Pilar Ajax 6 - Pilar S. Germain 4
- **Alebin neskak** ■  
Pilar Mix 2 - Ikas Sei 1  
Pilar Star Girls 3 - Ikas Beder 6  
Herri Women's 2 - Ikas Txingor 0  
Mendaro C 2 - Ikas Trumoi 3

#### SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak** ■  
Ikas Urdin 16 - Herri Milan 6  
Pilar Boys 22 - Ikas Amantis 14  
Pilar Inter 10 - Ikas Txuri 16  
Ikas Pirri 11 - Ipuiterreak 7
- **Infantil neskak** ■  
Pilar Girls 8 - Gremlins 12  
Pilar Manchester 14 - Ikas Gorri 24  
Ikas Katxondak 12 - Ikas Beltz 9

### AGENDA (Otsailak 1. larunbata)

#### ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak (Kiroldegian)** ■  
9,00 Mendaro A2 - Mendaro A1  
9,30 Pilar Flash - Ikas Mazarro  
10,00 Pilar Lacasitos - Ikas Kirolo  
10,30 Ikas Zirt - Ikas Txut
- **Benjamin neskak (Kiroldegian)** ■  
11,00 Mendaro B - Ikas Izurde  
11,30 Urasandi - Ikas Zart  
12,00 Pilar Kas - Pilar Usoak

#### ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak (Urasandin)** ■  
9,00 Ikas Eguzki - Mendaro D  
9,45 Herri Manchester - Ikas

#### Ilargi

- 10,30 Herri Boomerang - Ikas Otsokoak  
11,15 Pilar Ajax - Ikas Axelkoak  
12,00 Pilar S. Germain - Pilar All Star
- **Alebin neskak (Ikastolan)** ■  
9,45 Herri Women's - Ikas Laino  
10,30 Pilar Star Girls - Ikas Trumoi  
11,15 Ikas Mix - Ikas Txingor  
12,00 Ikas Sei - Ikas Beder

#### SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Pilarrean)** ■  
9,45 Ikas Urdin - Pilar Boys  
10,30 Pilar Inter - Herri Milan

**AGENDA**

**Futbola, Mintxetan**

Larunbata, 1  
**9,00** Eibar - Aretxabaleta (1. kadeteak)  
**10,45** Urki B - Eibartarrak (2. jubenilak)  
**12,30** Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (Oho. kadeteak)  
**15,30** Elgoibar - Antiguoko (Oho. jubenilak)  
**17,15** Elgoibar - Anaitasuna (1. erreg.)  
**Igandea, 2**  
**10,45** Gazteak - Urki (2. erreg.)  
**11,15** Eibar - Aurrera Vitoria (Oho. jub.)  
**13,00** Eibartarrak - Lagunak (Neskak)  
**16,30** Elgoibar - Antzuola (2. jub.)  
**18,15** Beti Sutan - Bergara (2. erreg.)

**Eskubaloia, Kiroldegian**

Larunbata, 1  
**16,00** Tecnomeca Elg. - Aloña Mendi (Jub. mut.)  
**17,30** Pneumax - Zarautz (Kad. mut.)  
**Igandea, 2**

**EMAITZAK**

**Futbola**

**Haundi 5** - Baskonia 0  
 Elgoibar 5 - Aloña Mendi 2 (Neskak)  
 Soraluze 2 - Elgoibar 2 (2. jubenilak)  
 Aloña Mendi 3 - Elgoibar 3 (Oho. jub.)  
 Bergara 1 - Elgoibar 0 (Oho. kadeteak)  
 Elgoibar 7 - Eibartarrak 3 (Oho. infant.)  
 Aretxabaleta 0 - Elgoibar 0 (1. erreg.)

**Eskubaloia**

Leizaran 22 - Pneumax 39 (Kad. mut.)  
 Pulpo 14 - Unceta Elg. 11 (Kad. neskak)  
 Pagoaga Elg. 25 - Bergara 12 (Jub. nesk.)  
 Hernani 25 - Hyundai 18 (Seniorrak)

**Saskibaloia**

Lesaka 65 - Elgoibar 50

**Futbitoa**

Aldavas 5 - Maser 3  
 Sorpresa 7 - Ikus Optika 1  
 Kosakos 2 - Sanpedrotarrak 0  
 PSK 6 - Spartak 2

**Areto futbola**

Astillero 3 - Elgoibar 0 (1. maila)  
 Egoki 6 - Elgoibar 0 (Autonomikoa)

**Xakea**

Elgoibar 3,5 - Fomento 0,5 (1. maila)

**KIROL ALBI STEAK**

● **Gaztetxoentzako eskubaloia**

Elgoibarko Kirol Elkarteko Eskubaloi Taldeak 82 eta 83 urteetan jaiotako neska-mutilei artean eskubaloian hasteko aukera badutela jakinarazi nahi die. Eskubaloian jokatzeko gogoia badute asteartero entrenamenduak izaten dira arratsaldeko 5etan Kiroldegian. Animatzen diren jokalarri guztiak datorren denboraldian hasiko dira ekipoetan jokatzeko.



● **Oinarrizko masaia ikastaroa**

Udal Patronatuak maisaiari buruzko oinarrizko ezagutzak jasotzeko ikastaroa antolatuta du otsailaren 15etik aurrera. Klaseak zapatu goizetan izango dira Olaizaga kiroldegian. Hilebete bateko iraupena duen ikastaroan masaiaren oinarrizko teknikak azalduko dira eta 16 urtetik gorakoei zuzendua dago. Izena emateko 74 44 15era deitu. Prezioa 3.000 pta.koa da bazkideentzat eta 4.000 pta.koa gainontzekoentzat.

● **Morkaikoren zuzendaritza aldaketa**

Morkaikok zuzendaritza berria izendatzeko bilera egin zuen joan den astean baina beraiek esan digutenez, apenas agertu zen jenderik. Inork ez zuen zuzendaritza berrian sartzeko asmorik agertu, beraz, erreleburako jende beharrean daude. Otsailaren erdi aldera berriz egingo da bilera gai honi behin-betiko irtenbidea topatzeko.

**ITURRI**  
 Taberna

Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR

**HERRI-GAİN**  
**ERRETEGIA**  
 San Pedro auzoa 4  
 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**MIREN**  
 arraindegia

Santa Ana  
 74 34 49  
**ELGOIBAR**

## 550 lagunek hartu dute parte aurtengo Idaz-Lehiaketetan

*Elgoibarko Izarra Kutur Elkartek urtero antolatzen duen "Idaz-Lehiaketan" sari banaketa ekitaldia izan zen pasa den ostegunean. Kultur Etxeko hitzaldi gela neska-mutilez gainezka zegoen. Inazio Bereziartua musikeskolako Txistularien saioak eman zion hasiera ekitaldiari. Atsedeanaldian Amaia Gabilondok bi pieza jo zituen pianoan.*

**S**ekula baino lan gehiago aurkeztu dira 1996ko Elgoibarko Izarra Idaz-Lehiaketetan. Edo gauza bera dena, sekula baino lagun gehiago

animatu da zerbait idaztera bai Etxegiña Bertso-Paperen atalerako bai Prosa lehiaketarako.

Bertsoetan 120 lanen artean onenak aukeratu ziren, horretarako izendatuta zegoen epaimahaia German Meabe eta Izaskun Elizburuk osatu zutelarik. Prosan, berriz, Jasone Osoro BARREneko lankideak eta Itziar Agirregomezkortak 430 lanen artean onenak aukeratzeko ardura izan zuten.

Sariak ez ziren, ez, makalak izan. Bestela, begiratu jarraian agertzen den zerrendari. (Argazkietan, Itziar Astor-



kia falta da, bertsoen C mailako bigarren saritua.)

### A MAILA (DBHko 1. eta 2. mailak)



Txapelduna SARE GURRUTXAGA  
"Emango al zenidake lore bat?"  
(Txapela eta 15.000 pta.)

Bigarren saria NAGORE ESCUDERO  
"Elefante erraldoia"  
(10.000 pta.)

### B MAILA (BBBko 1. eta 2. mailak)



Txapelduna MIREN LARRAÑAGA  
"Berdearen sakonera"  
(Txapela eta 25.000 pta.)

Bigarren saria MIKEL ANDONEGI  
"Oroimenak ala ideiak"  
(15.000 pta.)



Txapeldunak JON GARATE  
"Transilvania Express"  
eta UNAI VILLENA  
"Edozein hiri, edozein gau"  
(Txapela eta 25.000 pta.)  
(Ex aequo)



## XVI. ETXEGIÑA BERTSO-PAPER LEHIAKETA



### A MAILA (LHko 5. eta 6. mailak)



Txapelduna ANE LARRAÑAGA "Larunbatak Elgoibarren"  
(Txapela eta 8.000 pta.)

Bigarren saria OLATZ GALARZA eta MADDALLEN MORA  
"Euskal Herriko Mendiak" eta "Nire ametsetako mutil xarmenta"  
(2.500 pta)



### B MAILA (DBHko 1. eta 2. mailak)



Txapelduna UXUE ALBERDI  
"Elkartasuna".  
(Txapela eta 10.000 pta.)

Bigarren saria ARITZ KRUIZELI eta AINHOA URIARTE  
"Udazkena" eta "Amodiozko ametsa"  
(3.000 pta.)



### C (14-20 urte)



Txapelduna KEPA MENDIKUTE  
"Gazte zara gazte"  
(Txapela eta 15.000 pta.)

# Iñigo Palomino

IKASLEA - 22 URTE

**1- Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea?** - Nik uste baietz. Bizitzan poztasunak gehixo dia penak baino. Eta Elgoibarren bizitzea baita ere, beti esaten da nor bere herrixan bezela ez dala inun egoten. Bilbon bizi izan nitzan eta nahixao dot Elgoibar.

**2- Eutanasia praktikatuko al zenioke familiako bati?** - Burua ondo euki eta berak eskatuko balu oso gaizki da goelako, bai.

**3- Hil eta gero?** - Bizitzara etorri eta gero ezer ez daola sinistia oso fuertia da eta zeozer daola sinistea nahi dou baina nik ez dakat oso klaru.

**4- Lehenengo ni eta gero bestiak.** - Ni eta bestiak batera. Lehenengo, ez bata ez bestia.

**5- Nori kontatzen dizkiozu arazokak?** - Segun ze arazo dan lagun bati edo amari.

**6- Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?** - Anbizioa zahartzarora ailegau eta atzera begiratzarakuan bizitzan ondo pasau dotela ikustia. Biziorik ez dakat.

**7- Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik?** - Politikuak ahalegintzen dia gizartean bete behar duten funtzioa betetzen baina, bizitzako beste ataletan bezela onak eta txarrak daude eta jeneralian beti destakatzen dia txarrak. Nik botatzen dot, gizartiaz arduratzen zerala demostratzeko era bat da.

**8- Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera?** - Institutuan nauanian, soldadutzaren aurka.

**9- Euskalduna naiz eta harro nago.** - Bai, andaluzak ere harro egongo dira andaluzak izateagatik. Pertsona guztiak egon behar dia harro bere jaiote-

riaz.

**10- Zerk galarazten dizu loa?** - Normalian ondo eitxen dot lo, ez dakat preokupazio haundirik.

**11- Nolako Gaztetxea behar da Elgoibarren?** - Hitzak esaten daban bezela, gazte guztiak juteko toki bat.

**12- Gurasoek asko sufritzen al duzte zurekin?** - Ezetz pentsatzen dot ikusten dabelako bizitza nahiko bideratuta dakatela. Gaztio zeranian preokupazio gehixo eukitzen dabe.

**13- Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?** - Gehixen bizitzan datozen gauza guztiei aurre egiten dakitela, arazoan aurrrian nola jokatu dakitela. Gutxien, oso pendiente egoten diala nik eta nere anaixek eitxen dogunaz.

**14- Laguntzen al duzu etxeko lanean?** - Gitxi, mahaixa eguneru jartzen dou anaixen artian eta zapatuetan baikoitzak bere ohia eitxen dau.

**15- Alkoholik gabeko jairik?** - Ezinezkua izango litzake gaur egun gauzak dauden bezela. Kalian jendiak baietz esaten dau baina gero oso gitxi dabiz ezer edan gabe. Gainera, nik uste dot ez dala txarra kontrolatzen badozu.

**16- Irakurri duzun azken liburua?** - Pérez Reverte-ren "La piel del tambor".


**17- Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?** - Sexua maitasunakin.

**18- Birjinitatea: sakrifizioa ala**

**birtutea?** - Gaur egun ez jako lehen best eko inportantzia ematen, ez neskak eta ez mutilak. Gaur egun sakrifizioa gehixo da birtudia baino.

**19- Homosexual batek maite zaituela esango balizu?** - Edozeinek dauka eskubidia bere sexualitatean aukeratzeko eta nik neskak gustatzen jatazela esango nioke arren errespetau ingo neukeeta ondo irudituko litzaidakir irikitzia eta esatia, bere egoera onartuta eukitzia.

**20- Sinesten al duzu betirako maitasunean?** - Hala bihar dau izan ze lehen edo beranduo pertsona batekin lotzen zera, pertsona hori bestien gainera maitatzen dozu eta nik uste maitasun hori betirako dala.



## I. URTEURRENA

1996ko urtarrilaren 31an hil zen

AMAIA VIÑARAS URIAREN oroimenez, URTEMEZA izango da larunbatean, hilak 1, arratsaldeko 7etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emailak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea. . . . . 741050  
 Udalzaingoa . . . . 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia. . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Institutua. . . . . 74 02 67  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21  
 Zazpiki irratia . . . 74 34 74

31 ostirala

22,15 ZINE KLUBA  
 "Lone Star"  
 Antolatzailea: Ongarri  
 Zine kluba

1 larunbata

19,30-22,15 ZINEA  
 "Fanático"

23,00 KONTZERTUA  
 Morau eta bere taldea  
 Gaztetxean

2 igandea

16,30 ZINEA  
 "Mi colega Dunstone"

16,30-19,30-22,15  
 ZINEA  
 "Fanático"

3 astelehena

22,15 ZINEA  
 "Fanático"

4 asteartea

14,30 SANTA ESKEA  
 BASERRIZ BASERRI  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea:  
 Elgoibarko Izarra

6 osteguna

19,00 HITZALDIA  
 Gaia: Sexua: maitasun ha-  
 rremanak  
 Hizlaria: Amaia Vazquez  
 sexologoa  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea:  
 Elgoibarko Izarra

7 ostirala

19,00 ELGOIBARKO  
 IZARRAREN  
 5. URTEURRENA  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea:  
 Elgoibarko Izarra

22,30 ANTZERKIA  
 Lana. "30 millones de gi-  
 lipollas"  
 Taldea: Sobradum  
 Herriko Antzokian

ZIN



Zuzendaria: Tony Scott  
 Antzezleak: Robert De Niro,  
 Bobby Rayburn, Jewel Stern.

Fanático

Beisbolarekin obsesionaturik dagoen zaletu batek bere jokalaria faboritoaren lorpenen jarraipen estua egiten du. Hiriko beisbol taldeak jokalaria fitxatzen du baina beste jokalaria batek itzala egingo dio eta ezingo ditu bere abileziak erakutsi berak nahi lukeen moduan. Zaletuak, egoeraz jabetuta, itzala egiten dion beste jokalaria hiltzea erabakitzen du. Egun batetik bestera, bere idoloak fama lortuko du. Zaletuak bere idoloaren arrakastan zerikusia izan duenez, honen atzetik zelatan hasiko da.

 **XABIER**  
 ILEAPAINDEGIA  
*Eskatu  
 equina eta ordua*  
 San Bartolome 13, Tel. 74 19

*bai-ondo*  
*Errelegia*  
**Enkargatu azkar larunbateko afaria**  
 Giza eskubideen Plaza - Tel: 74 26 27 - ELGOIBAR



## ● Sexuari buruzko hiru hitzaldi

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak sexuari buruzko hiru hitzaldi antolatu ditu otsailaren 6, 13 eta 20rako. Datorren otsailaren 6ko saioan Amaia Vazquez sexu gaietan adituak, maitasun harremanak landuko ditu: bikotean bizitzea, hau da, komunikazioa, proiektuak, seme-alabak... Bigarren hitzaldian, otsailaren 13an, sexu harremanen barruan gozamen, desioa, irudimena, etab. aztertuko dira, eta azken saioan, otsailaren 20an, menopausia, andropausia, bikoteen banatzeak edo heriotzak sortzen dituzten arazoei buruz hitz egingo da. Hitzaldi guztiak arratsaldeko 7etan izango dira Kultur Etxean.



### Ongarri zinekluba

Datorren astean ez da pelikularik egongo. Hurrengo proiektzioa otsailaren 13an izango da.

## ● Santa Ageda Bezperan koplari

Otsailaren 4an, astearte, Elgoibarko Izarrak antolatuta koplariak baserriz baserri aterako dira. Elgoibarko baserri guztiak pasatuko dituzte, koplari bat botatzearen truke aginaldoa eskuratzea delarik ohitura. Santa Ageda eskea arratsaldeko 2.30etan Plaza Handian hasi eta gaueko 10ak aldera amaituko da, ohitura denez, San Migeleko soziedadean egingo den afariarekin.



## ● Haritz Dantzari Taldearen 25. urtebetetzea

1998an Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeak 25. urteurrena beteko duela-eta, taldeko kide izan diren guztiei bilera baterako deia luzatu nahi zaie otsailaren 12rako, asteazkena. Bilera Kultur Etxean izango da iluntzeko 8etan. Argazkian 1974ko San Bartolome egunean, Jose Luis Juaristi eta Josu Mujika soka-dantza dantzatzen.

## ● “Morau” Gaztetxean

Larunbatean, otsailak 1, Morau abeslariak eta bere taldeak kontzertua emango du Madalako Gaztetxean. Beren lehen diskaren aurkezpena egingo du Morauk. Kontzertua gaueko 11etan hasiko da.

## ● Antzerkia otsailaren 7an

Udal Kultur Zerbitzuak “Sobradun” taldearen “30 millones de gilipollas” antzezlan antolatu du otsailaren 7rako. Lana gaztelaniaz izango da. Sarrera 500 pta.koa da eta gaueko 22,30etan hasiko da.

## ● Elgoibarko Izarraren etapa berriko

### 5. urteurrena

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bost urte beteko ditu etapa berriari ekin zionetik. Ekitaldien barruan datorren ostirale-



an, otsailak 7, diapositiba emanaldia eta hizketaldi saioa izango dira Kultur Etxean arratsaldeko 7etatik aurrera. Bost urte hauetako jardunari buruzko Izarren Hautsa berripapera banatuko da eta diapositibak emango dira bost urteotako jardunaren adierazgarri. Ekitaldira Elkarteko bazkideak eta herritarrak daude gonbidatuta.

## T X A N - D A K

### FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
1	Bidasolo	Anduaga
2	Bidasolo	Anduaga
3	Yudego	Yudego
4	Ormazabal	Ormazabal
5	Yudego	Anduaga
6	Etxeberria	Zabaleta
7	Etxeberria	Etxeberria

**OKINDEGIA**  
2 igandea Doña Mercedes



Urtarrilaren 26an, 74 urte zituela hil zen **MODESTO VILA ROZAS**en sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatibler salgai. (Mikel) **☎ 74 19 21**
  - ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. **☎ 79 78 26**. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
  - ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreintatu berria salgai. **☎ 74 23 22**
  - ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. **☎ 74 02 30**
  - ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. **☎ 19 50 89** Emilia
  - ◆ PEUGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. **☎ 74 06 33** (Xabier)
  - ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. **☎ 74 15 45** (eguerdian eta gauean)
  - ◆ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. **☎ 74 10 42**
  - ◆ Kitarra elektriko eta anplia erosiko nituzke. **☎ 74 37 23** (Eguerdian eta gauean)
  - ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. **☎ 74 36 98**
  - ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. **☎ 75 51 90**
  - ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. **☎ 74 18 55** (Gauetz)
- ◆ EROSI ◆**
- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. **☎ 74 06 55** (8etatik aurrera)

## Bestelakoak

- ◆ Argazki karrete bat galdu nuen joan den larunbatean, hilak 25, tiobiboen inguruan. 24 argazkikoa da eta kartutxo beltz baten barruan zegoen. **☎ 907 45 76 76**
- ◆ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelo guztiak. **☎ 47 00 01** (arratsaldeko 5etatik 7etara).
- ◆ Belarritako bat aurkitu nuen telefono kabina baten ondoan. **☎ 74 10 74**
- ◆ Emakumezko kate doratu bat topatu nuen hilaren 29an Osoro den-da parean **☎ 74 25 40** Maite

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. **☎ 74 30 30**
  - ◆ Ileapaintzailea naiz eta etxetxe mozten dut ilea. Mari Karmen. **☎ 74 21 55**
  - ◆ Emakume bat eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. **☎ 74 04 75**
  - ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) **☎ 74 36 38**
  - ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. **☎ 989 09 31 86**
  - ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. **☎ 74 11 40** (Iruinea)
  - ◆ Administralan egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. **☎ 74 39 39** (Puri)
  - ◆ Administralan egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. **☎ 74 40 57** (Celsa)
  - ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. **☎ 74 22 78**
- ◆ ESKAINTZA ◆**
- ◆ Neska bat behar da astebukaeratan Orbea tabernan lan egiteko. **☎ 74 31 17**
  - ◆ Neska edo emakume euskalduna behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. **☎ 74 35 86** (eguerdian edo gauean) edo **☎ 86 12 47** (Lourdes)
  - ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ermuan ezin atenditu dugulako. **☎ 17 07 07 / 74 21 43**
  - ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). **☎ 70 12 33**

## Garajeak

- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, pista beltzean. **☎ 74 33 52**
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. **☎ 74 34 10**
- ◆ Garajea daukat alokatzeko pista beltzean, labaderoa erabiltzeko eskubidearekin. **☎ 74 01 77**
- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, Karakate elkartearen azpian. **☎ 74 18 37**

## Etxebizitzak

- ◆ Pisu daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. **☎ 74 37 25**
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitua. **☎ 74 01 34**
- ◆ Pisu salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. **☎ 12 72 22**
- ◆ Alokatzeko pisu bila gabiltza. Moblatuta eta 3 logelarekin. Joseba Astorkiza. **☎ 74 41 32**
- ◆ Pisu amoblatua alokatzen da. **☎ 74 04 75**
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. Erabili gabe dago eta hiru logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajera ditu. **☎ 75 51 77**

## Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. **☎ 74 21 65** Javi

- ◆ Mila kilo zorian **Nerea Gil**-i, atzo, hilak 30, 10 urte bete zenituelako. Familiaren partez eta bereziki zure ahizpa Olatzen partez.
- ◆ Zorionak **Ander Esnaolari** hilaren 26an urteak bete zituelako.
- ◆ **Jose Mari Fernandez**-i eta **Susana Azpilikueta**-ri zorionak hilaren 27an urteak egin zituztelako. Bere alaba eta iloba Dorletaren partez.

- ◆ **Jose Antonio Agoteri** zorionak, gaur, hilak 31, bete urtebetetzea delako. Aitor, Chefe, Jose Mari, Idoia eta Dorletaren partez.
- ◆ Otsailaren 1ean urteak beteko dituen **Blankiri** zorionak Esther eta Leireren partez.

- ◆ Zorionak nire aita **Pedro Uraini** bere urtebetetze egunean alaba Ane eta Lara eta emaztearen partez.
- ◆ **Iruñe Fernandez**-i: espero dut otsailaren 5ean, zure urtebetetze egunean, zure nahiak betetzea eta ea zure amona saniatzen den. Zure lagun Puriren partez.
- ◆ Zorionak **Blankiri** bere alaba Leire eta Oihanaren partez otsailaren 1ean urteak betetzen dituelako.

## Agurrak

- ◆ **Arrixuri** belarritik hamar tirakada eta sekulako besarkada 4. mailakoen partez.



- ◆ Otsailaren 4an 10 urte beteko dituen **Arrixuri** zorionak guraso, aita bitxi eta ama bitxiaren partez.




- ◆ Gaur, hilak 31, 8 urte betetzen dituen **Maitane Moredari** zorionak bere ahizpa eta gurasoen partez.



- ◆ Zorionak **Toñito!** Eskerrak hazteari planto egin zenion! Hala ere guapoagoa zinen txikitari.

- ◆ Zorionak **Marty Owen**-i bere neba Inakiren partez otsailaren 2an 19 urte beteko dituelako. (Zorionak Akio).



- ◆ Pastak ahoan ditzugula akordau gera hartu bakarrik ez dala egin behar. Eta ematen hasita, ZORIONAK eta 2 MUSU HAUNDI ematia pentsatu de, nahiz eta berandu izan. Elkarteko langileen izenean.

- ◆ Zorionak **Oihane Garateri** hilaren 29an 10 urte bete zituelako. Aita, ama, ahizpa Leire eta Gorka anaiaren partez.

# AUTOENTZAKO ASEGURUEN



## ZURETZAT EGINA



San Frantzisko, 40  
Tel. 74 05 82  
20870 ELGOIBAR

# CENTRONET

T I N D A T E G I A

*CENTRONET tindategiak bere lehen urtea ospatu nahi du bere bezero guztiekin.  
Hori dela eta, otsailaren 15a arte eskaintza berezi hau izango duzu:*

**EDOZEIN JANTZIREN GARBIKETA 595pta.**

**ZERBITZURIK ONENA PREZIORIK INTERESGARRIENETAN**

**CENTRONET:** Errosario kalean, LIZZY dendan. 20870 ELGOIBAR  
Bidebarrieta, 42 behea. 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel. 943 20 42 63

# SEXU ARI BURUZKO

■ Otsailak 6, osteguna

**MAITASUN  
HARREMANAK**

**BIKOTEAN BIZITZEA:**

Komunikazioa, proiektuak,  
sexualitatea, seme-alabak,  
berezko guneak.

Arratsaldeko 7etan  
**KULTUR ETXEAN**

Hizlaria  
**AMAIA VAZQUEZ**

■ Otsailak 13, osteguna

**SEXUALITATEA  
SEXU HARREMANAK:**

Gozamena, desioa,  
irudimena, fantasiak.

■ Otsailak 20, osteguna

**GURE BIZITZA  
PERTSONALEAN  
AGERTZEN DIREN  
ZENBAIT ARAZO ETA**



Antolatzailea: ELGOIBARKO IZARRA

Laguntzaileak: Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

